

ARTE ESZENIKOAK TEKNOFEUDALISMOAREN AROAN

dFERIAren XXXII. edizioaren esparruan, eta María Pagés Fundazioarekin batera antolatuta, *Las artes escénicas en la era del Tecnofeudalismo* mahai-inguruak 7 profesional bildu ditu, arte eszenikoen sorkuntzaren, kudeaketaren eta ekoizpenaren alorretatik datozenak. María Pagés Fundazioko zuzendari El Arbi El Hartiren *Hacia unas artes escénicas resilientes* iritzi-artikulua abiapuntutzat hartuta, eta autoreak berak zuzenduta, bildutako profesionalak hainbat galderari erantzun nahi izan diete, hala nola hauei: Zer leku dute arte eszenikoen existentzia ez den eztabaida batean eta existentzia ez den erresistentzia batean? Zer eginkizun izango lukete arte eszenikoen gure mundu berriari buruzko gogoeta hipotetiko batean? Arte eszenikoen eta, orokorrean, artearen zer balio defendatu beharko genituzke artearen osteko aro likidoan?

Pantailen bizkortasun anestesikoaren eta isolamendu algoritmikoaren zamapean geinbeheratzen ari den mundu honetan, gu, arte eszenikoetako profesionalok, gure existentzia ekintza politiko, etiko eta suntsiezin gisa berresteko biltzen gara.

Egungo teknofeudalismoaren garaiari buruz honako hau adierazi nahi dugu:

Antzerkia guztion etxea eta gizatasunaren babeslekua da

Arte eszenikoak ez dira luxu bat, herritarren eskubide kulturalak dira. Polarizazioaren eta indibidualismo basatiaren aurrean, nortasun eleaniztunak eta askotarikoak aitortzen dituen askatasun-eremu ukaezin gisa ezartzen gara.

Plaza publikoa gara, ideiak ekintza bihurtzen diren lekua, komunitatearen aurrean hitzak bitzta hartzen duen tokia.

Memoria eta gorputza gara, antzerkia dirua baino zaharragoa baita, edozein krisi baino hauskaitzagoa. Aldi berean, dantza, gorputza mugitzen ari dela, gure ekintza politikoa da; elkarbitzta-balioen desintegrazioaren aurrean babestu egingo dugun ahalegin- eta elkartasun-euskarria.

Sormen-erresistentzia jarri behar zaio Mendebaldearen gainbeherari

Errealitatea –geroz eta lausoagoa dena– ulertzeko beharrezko gatazkagune gisa ulertzen dugu eszenatokia.

Gure gain hartzen dugu komunitatea sortzeko eta hausnarketa kolektibora bultzatzen duten galderak egiteko zeregina. Antzerkiak ez du mundua berez aldatuko, baina badu, aitzitik, antzerkian bizi diren pertsonak eraldatzeko erabateko boterea.

Adimen artifizialari mugak jarri behar zaizkio, gizakia ordezkazina delako

Teknologia tentuz hartzen dugu, irmotasun negoziatzeko batekin. Adimen artifizialak informazioa prozesatu dezake, baina ezingo du inoiz ez emoziorik, ez elkartasunik sortu, ezta giza gorputzaren fisikotasunik ere.

Baliabide natural mugatuaren erabilera estraktibista –teknologiarako beharrezkoa– salatzen dugu. Ez dugu inolaz ere onartuko gure sormena datuen prozesamenduarekin ordezkatzea.

Adimen artifizialek haratago, gure kezka kontsumo-kapitalismoaren dinamiketan datza. Adimen artifizialak kapitalismo izaten jarraitzen du, egoera ezin gaiztoagoa sortzen duen kapitalismo bat. Iraultza egin behar dugu, eta iraultza jomugatzat hartu. Zerbait aldatzen saiatze hutsa positiboa da. Ez dugu dena aldatuko, baina sistema antzerkiaren bidez erasotzen saiatuko gara behintzat.

Sareak betikoek maneiatzen dituzte, alderdi berriak behar ditugu, publikotasunerantz jo behar dugu. Ikusi behar da nortzuk diren gure etsaiak, gizartearen etsaiak, gerrara garamatzatenak. Kritikoagoak izan behar dugu.

Horregatik guztiagatik, arte eszeniko kritiko, humano eta errebeldeak aldarrikatzen ditugu.

Egoera honetan, antzerkiaren aurkako eredia da garapen teknologikoa, gizaki isolatuak, homogeneizatuak, sortzen baititu. Antzerkiak giza topaketa sortzen jarraitzen du, eta, beraz, karga ideologiko handiagoa behar da egungo antzerkian korrante kapitalista horren aurka borrokatzeko.

Arte eszenikoa **artisautzazko eta aurrez aurreko** prozesu gisa defendatzen dugu.

Antzerkia, azken batean, elkarrekin gaudenean egiten dugun hori da. Mundu zatikatu batean, gizartea bizitoki hau babestera bultzatzen dugu. Kontrol digitalaren aurrean, presentzia aukeratzen dugu. Isolamenduaren aurrean, erritu kolektiboa aukeratzen dugu.

Hauek sinatu dute:

El Arbi El Harti (María Pagés fundazioaren zuzendaria eta mahai-inguruaren zuzendaria)

Ramiro Osorio (Bogotako Teatro Mayor antzokiaren zuzendaria eta mahai-inguruaren moderatzailea)

Luis Luque (dramagilea, Nave 10 Matadero Creación Dramática Contemporánea proiektuaren zuzendari artistikoa)

María Pagés (koreografoa, María Pagés fundazioaren lehendakaria)

Martxel Rodriguez (Led Silhouette konpainiaren zuzendaria)

Muriel Romero (Espainiako Dantza Konpainia Nazionalaren zuzendaria)

Nahikari Aretxederra (Arriaga Antzokiaren programazio-zuzendaria)

Gustavo Zidan (Uruguako Arte Eszenikoen Institutu Nazionalaren koordinatzailea)

Helena Salaberria (Grupo Smedia taldearen zuzendari nagusia)